

Antonio Zavalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eman dizkio bere artxiboko material guztiak

Lehenengo ordenatu egin beharko dira, eta gero digitalizatu eta argitara eman Txabarri: «Zer gertatuko zatekeen Zavalak lan guzti hauek bere bizkarrera hartu ez balitu?»

FELIX IBARGUTXI/DONOSTIA. DV. Antonio Zavalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eman dizkio hainbat urtetan zehar bildu dituen bertsopaper, eskuizkribu, liburu eta grabazioak. Bere artxibo guztia eman dio, eta Jesuiten Lagundiak ontzat hartu du tolosarraren erabakia. Koldo Mitxelena Kulturunean gordeko da altxor hori eta material guztiak digitalizaru egingo ditu Diputazioak, hortik kopia bat emango zaiola Deutuko unibertsitateari, eta beste bat Euskal-tzaindiari. «Gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiak Zavala-Auspoa bildumako bertso, liburu, eskuizkribu eta grabazioak kudeatu eta argitaratuko ditu irakurle zein ikertzaileen erabilera errazteko asmoz», esan zuen atzoko ekitaldian Joxe Joan Gonzalez de Txabarri ahal dun nagusiak.

Iaz hasi ziren Zavala eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko elkarlana. Zavalak kudeatzen duen Auspoa liburu-bilduma Diputazioa hasi zen argitara ematen orduan. Orain beste pauso bat eman du tolosarrak, eta herri-erakunde honi eman dio, dohainik, berak Xabierren bi gelatan dituen paper eta grabazio guztiak.

Zavalak ez dio «artxibo» deitu nahi. «Ikertzaileok zera egiten dugu, materiala pilatu eta pilatu. Ez dugu hura ordenatzeko astirik izaten -esan zuen atzo-. Nik ordenatzen dut, liburuak egin ahala. Egindako liburuen originalak ordenatuta daude, besteak ez, eta orain kanpokoren bat sartuko balitz nire gela horretan zerbaiten bila, ez luke topatuko; hura oihan bat da-eta». Foru Aldundiak lagun batzuk jarriko ditu lanean material haiek behar bezala artxibatzeko, Zavalarekin elkarlanean ariko direlarik. Aurrerantzean, Antonio Zavalaren bilduma izenarekin ezagutuko da material hori dena.



Joxe Joan Gonzalez de Txabarri, Antonio Zavala, Paulo Iztueta, Txillardegi eta Joxe Mari Iriondo, atzo Aldundiaren jauregian. [MIKEL FRAILE]

KM kulturguneak baditu lehendik beste atxor batzuk, hala nola Juan Perez Lazarragaren eskuizkribua, Julio Urkixoren liburutegia eta Gabriel Celayaren fondoa.

«Berdin jarraituko dut»

«Nik berdin jarraituko dut lanean», esan zuen atzo tolosar iker-tzaileak. Laster Nikolas Zendoia ren artikul u bilduma emango du argitara, hain zuzen ere DV-n argitaratutako lanen bilduma. Eta atzo poltsikoan liburu berri-berri bat zuela etorri zen Xabierretik Donostiara: Juan Pablo Jiménez Rodríguez-en En las dehesas extremeñas. Kontuan izan behar da, Auspoa ez ezik,

Biblioteca de narrativa popular bilduma ere osatzen ari dela etengabe, beste kolekzio honetan Aragoi, Nafarroa, Errioxa, Extremadura eta beste toki batzuetako pertsona edadetuen oroitzapenak eta prosa-lanak eskaintzen ari delarik.

«Zein izan da gehien kostatu zaizun lana?» galderari honela erantzun zion atzokoan: «Aurten atera dudak Francisco Apalategiren Karlisten eta liberalen gerra--kontaerak. Oso eskuidatzi zail eta luzea zen. Eta gainera euskarazko pasarteak erdaraz ere eman behar zirenez...»

Zavala orain dela sei urte joan zen Xabierreko ikastetxera bizi-tzera, jesuitek Donostian daukaten ikastetxean zortzi urte eman eta gero. Baina horren aurretik beste hamalau urte emanak zituen Nafarroako etxe hartan.

Joxe Joan Gonzalez de Txabarri pozik zen atzo, Zavalaren erabakia dela-eta. «Antonio Zavalaren artxiboa edukiak egiten du aberats: hainbat bertsopaper, eskuizkribu, grabazio, liburu, egunkari eta aldizkari zaharretako zati, herri-literaturari buruzko erdal dokumentazio eta abarrek - esan zuen ahalduen nagusiak-. Hortxe dago, egituratuta, Aita Zavalak berrogeita hamabi urtez bildu duen altxorra. Esaterako, zenbat bertso ote dira, 1956ko irailerako berrogeita hamar mila bertso inguru baziren, eta, orduan, mordoxka eder batzuen zain bazegoen, orduz geroztik bildu eta bildu jarraitu badu? Zer gertatuko zatekeen Aita Zavalak bere bizitzan zehar lan guzti hauek bere bizkarrera hartu izan ez balitu? Ez da ber-tso-biltzea soilik izan Antonio Zavalaren lana. Deustuko Unibertsitateak Honoris causa doktore izendatu zuenean, berak egoki asko esan zuen bezala: 'Bildu, billatu, sailkatu, ikertu eta argibidez ornitutako aberastasunak liburuetan banatu, argitaratu eta euskal jendeari eskeiñi '».

«Askotan bakarrik»

Juan Miguel Arregi, Jesusen Lagundiaren Loiolako probin- tziburua honela mintzatu zen: «Benetan, ume polita da hau. Urte asko eman ditu lanean Antoniok, askotan bakarrik. Hainbat jenderekin hitz egin behar izan du eta era askotako sentimenduak izango zituen. Zavalak arrazoi sendo bat eman zigun: esan zigun hau dena herriarengandik jaso zuela eta herriaren eskuetan utzi behar zuela. Niri, berriz, sentimendua geratu zait gauza polita izango litzatekeela liburu batean Antoniok kontatzea batzuekin eta besteekin izandako harremanak. Baina bere izakerarekin ez da erraza izango».